


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Filologia Klasikoa

2019-2020

# Hizkuntzalaritza Historiko eta Konparatua: hizkuntza erromantzeen aditz morfologia, latinaren oinordekoak

**Egilea: Leire Moro Arana**

Tutorea: Jose María Vallejo

Saila: Ikasketa Klasikoak

## **Laburpena**

Lan honetan latinetik gaur egungo hizkuntza erromantzeetara emandako garapena aztertuko da, zehazki, aditz sinpleen morfologiaren garapena italiara, gaztelania eta frantsesean. Ikusiko da zein forma mantentzen diren aldaketa askorik gabe latinetik gaur egungo hizkuntzetara eta, honekin batera, zein beste forma aldatu diren gehien, beti egungo hiru hizkuntza erromantzeen aditz forma sinpleetan oinarrituz.

Era berean, nahiz eta gaur egungo hizkuntza erromantzeen aditz morfologiaren ezaugarri bereizgarriena forma konposatuak izan, hemen ikusiko da nola latinaren morfologiaren aberastasuna mantentzen den hizkuntza erromantzeen forma sinpleetan ere, ez baitira ematen desparadigmatizazio prozesurik. Ikusiko da, beraz, ez dela galtzen latinak zuen forma sinpleen aniztasuna forma konposatuen sorreraren eraginez, forma hauek garatzen baitira eta jarraitzen dute egungo hizkuntzetan.

# Aurkibidea

1. Sarrera
2. Helburua eta metodologia
3. Aditz morfologiaren garapena
  - a. Ezaugarri kontserbakorrak
    - i. Infinitiboa
    - ii. Inperatiboa
    - iii. Partizipioa
    - iv. Gerundioa
  - b. Ezaugarri berritzaileak
    - i. Konjugazioen berregokitzapena
    - ii. Indikatibo modua
    - iii. Subjuntibo modua
    - iv. Geroaldia eta baldintzazko formaren agerpena
4. Ondorioak
5. Bibliografia

## **Sarrera**

Latina indoeuropear hizkuntzen familiaren parte da, grekera, indio zahar edo ingeles zaharrarekin batera adibidez. Berez, geografikoki Italiar penintsulan garatu zen hasieran, baina Erromatar Inperioaren influentzia eta hedapenaren ondorioz, mediterranean esparruetan zabaldu zen eta, geroago, eliza katolikoa eta kristautasuna dela eta, Erdi Aroan, baita Europako hainbat eremuetan hedatu zen. Izan ere, latinetik garatzen diren hizkuntza erromantzeak erromatar garaian konkistatutako eremuetan eboluzionatzen dira eta ez Erdi Aroan influentzia izan zituen tokietan.

Hizkuntza honen garapena erromantze–hizkuntzetara latin arruntean aurkitzen dugu eta ailegatu ez zaizkigun testuetan aurkitzen dugun latin klasikotik, alegia, Erromatar Inperioaren herri xeheak hitz egiten zuen latinetik garatu ziren. Inperioaren eremu ezberdinetan garatu eta gaur egungo hizkuntza asko eman zituen, batzuk garrantzi handikoak, geroko inperioen eraginez, mantendu baitziren boterean estatu ezberdinetan edo ofizialtasuna lortu dutelako. Hauen artean aurkitzen ditugu portugesa, gaztelania, frantsesa, katalanera, italiara, napolitanoa, errumaniera, etab... Esan bezala, batzuk garrantzi handiagoa lortu dute urteak pasa ahala eta beste batzuk dialektotzat hartu izan dira eta guzti.

Dena dela, denak iturri berdinetik jaio izan dira eta hauetan ikus dezakegu ezaugarri komunak partekatzen dituztela batzuetan, gaur egun ere, eta besteetan ezberdintasunak nabariagoak direla. Ezaugarri hauen izaera ulertzeko hizkuntza hauen garapen linguistikoa kontuan hartu behar da, alegia, nola garatu izan da latina, latina izatetik, gaur egungo hizkuntzak izatera, latinak zituen ezaugarriak nolabait mantendu diren edo aldatu diren, zein hizkuntzetan ematen diren aldaketa edo gordetze hauek. Horretarako hizkuntza erromantzeak aztertu behar dira, konparatuz bai latinarekin, bai haien artean.

Honetarako hiru hizkuntza hartuko dira kontuan: gaztelania, frantsesa eta italiara. Hautaketa honen zergatia ezin dugula hizkuntza erromantze guztiak aztertu, lan luzeegia baita eta, hautatu behar den heinean, aukeratzen dira ondo dokumentatutako hiru hizkuntzak, eta hiztun kopuru handia dutenak da.

## **Helburua eta metodologia**

Lan honetan latinaren aditz morfologiaren garapena aztertu nahi da, zehazki, italiara, gaztelania eta frantsesa hizkuntzetan nola garatu den. Hala ere, ez dira hizkuntza hauen

forma konposatuak aztertuko, soilik forma sinpleak baizik. Honen arrazoi nagusia da forma konposatuak, hizkuntza erromantze hauen ezaugarri bereziena denez latinarekin konparatuz, askoz ere azertuagoak izan direla forma sinpleak baino eta, horregatik, lan honetan forma sinpleen garapena ikusiko da.

Dena dela, aztertuko diren hiru hizkuntzetan forma sinpleak direlako, geroaldia eta kondizionalaren formak ere aipatu eta azalduko dira nahiz eta jatorrian forma konposatuak izan.

Honatarako, azterketa konparatiboa erabiliko da, bai latina eta hizkuntza erromantzeen artean, bai hiru hizkuntzen artean. Aztertuko da zer nolako garapen diakronikoa eman den latinetik gaur egungo hizkuntzetara eta alderatuko dira italiara, gaztelania eta frantsesa haien artean ikusteko nola garatu den bakoitza.

## **Aditz morfologiaren garapena**

Lehen azaldu den moduan, aditz morfologian zentratuko da lan hau, nola garatu den italieran, gaztelanian eta frantsesean, konparatuko dira hizkuntza hauek haien artean eta haien hasierako formarekin, latina.

Honatarako, bi multzotan banatuko dugu lana: alde batetik, aldaketa txikiekin mantendu diren ezaugarriak, alegia, morfologiari dagokionez ia aldatu ez direnak eta, bestalde, morfologian aldaketa nabarmena izan dituzten ezaugarriak.

### **Ezaugarri kontserbakorrak**

Aditz morfologiaren garapenean ezberdinduko dira, esan den moduan lehen, mantendu diren ezaugarriak eta latinetik aldatu diren ezaugarriak hizkuntza erromantzeetan. Ezaugarri kontserbakorrekin hasiko da lana, alegia, infinitibo, inperatibo, gerundio eta partizipioko formak, bakoitzak zer nolako garapena izan duen eta aipatutako hiru hizkuntzetan nola aurkitzen diren.

### **Infinitiboa**

Hasteko infinitiboa zer den, zer nolako izaera morfologikoa zuen latinean eta honen zein ezaugarri mantendu izan diren ikusi behar da.

Latinean ez dugu soilik infinitiboko forma bakarra aurkitzen, egia esan, sei forma aurkitzen ditugu: orainaldiko infinitibo aktibo eta pasiboa, iraganeko infinitibo aktibo eta pasiboa eta, azkenik, geroaldiko infinitibo aktibo eta pasiboa.

Taula 1: Latineko infinitiboko formak

Infinitibo	I	II	III	IV
Orainaldi aktiboa	lavā-re	habē-re	perdē-re	dormī-re
Orainaldi pasiboa	lava-ri	habe-ri	perd-i	dormi-ri
Lehenaldi aktiboa	lavav-isse	habu-isse	perdid-isse	dormiv-isse
Lehenaldi pasiboa	lavat-um, -am, -um esse	habit-um, -am, -um esse	perdit-um, -am, -um esse	dormit-um, -am, -um esse
Geroaldi aktiboa	lavat-urum, -uram, -urum esse	habit-urum, -uram, -urum esse	perdit-urum, -uram, -urum esse	dormit-urum, -uram, -urum esse
Geroaldi pasiboa	lavat-um iri	habit-um iri	perdit-um iri	dormit-um iri

Hala ere, gaur egungo hizkuntza erromantzeetan soilik bat mantendu da: orainaldiko infinitibo aktiboa, pasiboa desagertu baitzen. Gainera, lau konjugazio zituen, beraz, konjugazio bakoitzekiko forma bat zegoen eta hemendik garatu zen infinitiboa. Aztertuko ditugun hizkuntza erromantzeetan ikusi dezakegu konjugazio hauek gutxi gora-behera mantendu direla, eta hortaz honako taula egin dezakegu argiago irudikatzeko aldaketa:

Taula 2: Latina eta hiru hizkuntzen infinitiboko formak

Konjugazioa	Latina	Italiera	Gaztelania	Frantsesa
I	lavāre	lavare	lavar	laver
	pensāre	pensare	pensar	penser
II	habēre	<u>avere</u>	<u>haber</u>	<u>avoir</u>
	debēre	<u>dovere</u>	<u>deber</u>	<u>devoir</u>
III	perdere	<u>perdere</u>	<u>perder</u>	<u>perdre</u>
	vendere	<u>vendere</u>	<u>vender</u>	<u>vendre</u>
IV	dormīre	dormire	dormir	dormir
	partīre	partire	partir	partir

Dena dela ere, aipatu beharra dago aldaketak egon bazirela konjugazioetan hizkuntzaz hizkuntza. Aldaketa hauek nabarmenagoak dira gaztelanian, hirugarren konjugazioa ezabatu baitzuen eta konjugazio honen aditzak bigarren edo laugarren konjugazioetara pasatu ziren. Horrela, aurkitzen ditugu hiru konjugazio gaztelaniaz, lehena (latineko lehena), bigarrena (latineko bigarrena eta hirugarrena) eta hirugarrena (latineko laugarrena). Honen adibideak:

Bigarren konjugazioan:

- a. *bibere – beber*
- b. *vincere – vencer*

Laugarren konjugazioan:

- a. *dicere – decir*
- b. *vivere – vivir*

Italieraz ikus daitezke hirugarren konjugaziotik laugarrenera pasatu diren aditz batzuk, baina ez da gaztelanian ematen den bezain nabarmena eta ohikoa. Hala ere, hemen dauzkagu adibide batzuk:

- a. *agere – agire*
- b. *capere – capire* (italieraz, berez, “ulertu” esan nahi du)
- c. *fugere – fuggire*

Frantsesak, bestalde, hirugarren konjugazioko aditz batzuk laugarren konjugazioan sartzen dituen arren, gehienak lehenengo konjugaziora pasatu ohi ditu, hala nola:

Lehenengo konjugazioan:

- a. *cedere – céder*
- b. *corrigerere – corriger*

Laugarren konjugazioan:

- a. *currere – courir*
- b. *surgere – surgir*

Frantsesak eta italierak ez dute normalean, gaztelaniak egiten duen moduan, hirugarren konjugazioko aditzak bigarren konjugaziora pasatzen. Dena dela, egon badaude zenbait adibide:

Taula 3: Hirugarren konjugaziotik bigarrenera pasatu diren zenbait aditz

Latina	Italiera	Frantsesa
cadere	cadere	choir
recipere	ricevere	recevoir
sapere	sapere	savoir

## Inperatiboa

Latineko modu honetan lau forma aurki ditzakegu: orainaldiko inperatibo aktibo eta pasibo eta geroaldiko inperatibo aktibo eta pasiboa. Infinitiboko forman ikusi dugun moduan, gaur egungo hizkuntzetan mantendu den forma bakarra orainaldi aktiboa da, eta, hizkuntza bakoitzeko, ikusiko ditugu eman diren aldaketak, lau konjugazio eta pertsonetan (2º singularra, 2º plurala).

Hizkuntzaz hizkuntza argiago ikus daitekeenez, italiara izango da aztertuko den lehen hizkuntza. Hemen aurkitzen dira lau forma konjugazio bakoitzeko, eta hauek ikusteko, konjugaziokaz ikusiko dira.

### Italiera

Taula 5: Italieraren agintera modua

Pertsona eta numero	Latina	Italiera
I		
2º singularra (tu)	canta	canta
2º plurala (voi)	cantate	cantate
II		
2º singularra (tu)	vale	vali
2º plurala (voi)	valete	valete
III		
2º singularra (tu)	perdi	perdi
2º plurala (voi)	perdite	perdete
IV		
2º singularra (tu)	dormi	dormi
2º plurala (voi)	dormite	dormite

Italieran 2º pertsonak erregulartasunez garatzen dira. Izan ere, italierako inperatibo eta indikatiboko formak bat egiten dute, honen arrazoia inperatiboko formaren esku-hartzea indikatiboko forman, bi modu hauen erlazio estuaren ondorioz, da.



## Gaztelania

Taula 4: Gaztelaniaren agintera modua

Pertsona eta numero	Latina	Gaztelania
I		
2º singularra (tú)	canta	canta
2º plurala (vosotros)	cantate	cantad
II		
2º singularra (tú)	vale	vale
2º plurala (vosotros)	valete	valed
III		
2º singularra (tú)	perde	pierde
2º plurala (vosotros)	perдите	perded
IV		
2º singularra (tú)	dormi	duerme
2º plurala (vosotros)	dormite	dormid

Ikusten denez, 2º pertsonak erregularitasunez garatzen dira.

## Frantsesa

Taula 6: Frantsesaren agintera modua

Pertsona eta numero	Latina <sup>1</sup>	Frantsesa
I		
2º singularra (tú)	canta	chante
2º plurala (vosotros)	cantatis	chantez
II		
2º singularra (tú)	vale	vaux
2º plurala (vosotros)	valetis	valez
III		

<sup>1</sup> Bigarren pertsona pluralaren formak ez datoz inperatiboko modutik, indikatibo modutik baizik geroa go azaltzen den moduan. Horregatik taulan indikatibo moduan agertzen dira latineko formak.

2º singularra (tú)	perde	perds
2º plurala (vosotros)	perditis	perdez
IV		
2º singularra (tú)	dormi	dors
2º plurala (vosotros)	dormitis	dormez

Frantsesean ikusten dena italiararen kontrakoa da, alegia, indikatiboko formak inperatiboan esku-hartzea izanda, indikatibotik garatzen da 2º pertsona plurala eta berdin garatzen dira gaur egun arte. Ikusten denez, bi moduak bat egiten dute.

### Partizipioa

Infinitiboarekin gertatzen den moduan, latinean ez dugu soilik partizipio mota bakarra aurkitzen, baizik eta lau: orainaldiko partizipio aktiboa, lehenaldiko partizipio pasiboa, geroaldiko partizipio aktiboa eta gerundibo gisa ezagutzen dugun geroaldiko partizipio pasiboa.

Taula 7: Latinaren partizipioko formak

Partizipioa	I	II	III	IV
Orainaldi aktiboa	lava–ns, lava–ntis	habe–ns, habe–ntis	perde–ns, perde–ntis	dormie–ns, dormie–ntis
Lehenaldi pasiboa	lavat–us, –a, –um	habit–us, –a, –um	perdit–us, –a, –um	dormit–us, –a, –um
Geroaldi aktiboa	lavat–urus, –ura, –urum	habit–urus, –ura, –urum	perdit–urus, –ura, –urum	dormit–urus, –ura, –urum
Gerundiboa	lava–ndus, –nda, –ndum	habe–ndus, –nda, –ndum	perde–ndus, –nda, –ndum	dormie–ndus, –nda, –ndum

Aztertzen ari garen hiru hizkuntza erromantzeetan garatu diren formak orainaldiko partizipio aktiboa eta lehenaldiko partizipio pasiboa dira, hizkuntzaren arabera era batean edo bestean ikus daitezke. Horregatik, biak aztertuko ditugu, lehenaldiko partizipio pasibotik hasita erregulartasun handiagoa erakusten duelako.

Lehenaldiko partizipio pasiboa aditz–adjektibo gisa gorde da eta hiru hizkuntzetan forma burutuak sortzeko erabiltzen da, adibidez, gaztelanian *pretérito perfecto*, italieran *passato prossimo* eta frantsesean *passé composé*. Hala ere, denbora eta forma konposatuen garapena aurrerago azalduko dira.

Taula 8: Latina eta hiru hizkuntzen partizipioak

Konjugazioa	Latina	Italiera	Gaztelania	Frantsesa
I	lavātum	lavato	lavado	lavé
	pensātum	pensato	pensado	pensé
II	hābitum	avuto	habido	eu
	dēbitum	dovuto	debido	dû
III	pērditum	perduto	perdido	perdu
	vēnditum	venduto	vendido	vendu
IV	dormītum	dormito	dormido	dormi
	partītum	partito	partido	parti

Taula honetan ikus daiteke latineko partizipioak garapen erregularra izan duela hiru hizkuntzetan. Italierak joera kontserbakorrakoa mantentzen du eta frantsesak berritzaileakoa. Izan ere, desberdinu behar da baita partizipioetan rizotoniko eta arrizotonikoen artean, azken hauek mantendu izan baitira errazago rizotonikoak baino, hauen artean aurki ditzakegu:

- a. Lat. *datus* > it. dato / esp. dado
- b. Lat. *status* > it. stato / esp. estado / fr. été
- c. Lat. *factus* > it. fatto / esp. hecho / fr. fait
- d. Lat. *apertus* > it. aperto / esp. abierto / fr. ouvert

Ez dira horrelako partizipio askorik aurkitzen hizkuntza hauetan, rizotonikoak ziren aditz gehienak arrizotonikoak bihurtu baitziren edo bestelako bilakaera izan baitzuten:

1. Lehenengo konjugazioan soilik *a* eta *b* adibideak aurki ditzakegu rizotonikoak direnak
2. Bigarren konjugazioan bi partizipio mota aurkitzen ditugu:
  - a. *delevi* – *deletus* mota, erromantzean mantentzen ez direnak

- b. Bestelakoak, mantentzen direnak baina hirugarren konjugazioko partizipiotik ezberdintzen ez direnak (*vidi, risi, placui; visus, mixtus*)
3. Hirugarren konjugazioak bi mota zituen
- a. *-itu* amaiera zutenak hizkuntza hauetan ez dira mantentzen partizipio moduan, baizik eta izen funtzioarekin eta, beraz, aditz-sistematik bereiztutak (lat. *perdita* > esp. *pérdida*, it. *perdita*, fr. *perte*).
  - b. Bestelakoetan aurkitzen ditugu *-tus* eta *-sus* amaiera (lat. *factu* > esp. *hecho*, it. *fatto*, fr. *fait*).
4. Laugarren konjugazioan soilik *d* adibidea aurkitzen da

Orainaldiko partizipio aktiboari dagokionez, gaztelania eta italieran antzeko garapena eman dela ikus daiteke, frantsesean, bestalde, gerundioarekin nahastu eta frantses gramatikan deitzen dioten *participe présent* aurkitzen da.

Gaztelanian eta italieran akusatiboko formatik *-ntem* > *-nte* atzizkia garatu da, gaur egun emankorra dena izen agentiboak sortzeko. Izan ere, hizkuntza hauetan orainaldiko partizipiorik ez da existitzen, alegia, forma honen aditz-adjektibo funtzioa ez da mantendu, funtzio hori soilik lehenaldiko partizipioak garatu eta mantendu du. Horrela, latinean *amans, amantis* partizipio gisa ulertzen zena, gaur egungo gaztelanian eta italieran *amante* eman du eta bere funtzioa ez da partizipioarena, baizik eta adjektiboarena, denborarekin nominalizatu izan dena.

Frantsesean, bestalde, ikus daitekeena da orainaldiko partizipio aktiboa garatu dela baina, gaztelanian eta italieran ez bezala, frantsesean beste funtzio bat hartu du. Zehazki, ikusten dena da *-ant* bukaerak, partizipiotik garatu dena, gerundioko funtzioa hartu duela, alegia, gaur egungo frantseseko gramatiketan *gerundive* deitzen dioten forma hori, berez, latineko partizipiotik garatu da. Hurrengo atalean azalduko da bere funtzioa, gaztelaniazko eta italierako gerundio formarekin batera.

## **Gerundioa**

Latinez gerundioa infinitiboaren forma osagarria zen, infinitiboak nominatibo eta akusatiboko funtzioa betetzen baitzuen eta, gerundioak, bestalde, genitibo, datibo, ablatibo instrumental eta preposizionala, baita akusatibo preposizionalaren funtzioa betetzen zuen.

Taula 9: Latinaren gerundioa

Kasua	I	II	III	IV
Akusatibo prep.	cantandum	videndum	vendendum	dormiendum
Genitibo	cantandi	videndi	vendendi	dormiendi
Datibo	cantando	videndo	vendendo	dormiendo
Ablatibo	cantando	videndo	vendendo	dormiendo

Hala ere, hizkuntza erromantzeetan mantendu den forma ablatibo instrumental–modala da. Hurrengo taula ikus daiteke forma hau nola mantendu den hizkuntza erromantze hauetan:

Taula 10: Latina eta hiru hizkuntzen gerundioa

Konjugazioa	Latina	Italiera	Gaztelania	Frantsesa <sup>2</sup>
I	cantando	cantando	cantando	chantant
II	videndo	vedendo	viendo	voyant
III	vendendo	vendendo	vendiendo	vendant
IV	dormiendo	dormendo	durmiendo	dormant

Ablatiboa preposizioa eta preposiziorik gabe erabili zen. Bigarren mota honek lehen aipatutako ablatibo instrumentalaren funtzioa zeukan (*currendo et luctando corpus confirmatur*), eta funtzio honek berez hainbat esanahi zituen, alegia, era ezberdinetan ulertu ahal zen:

1. Berezko funtzio instrumentala, gaur egun gaztelanian eta italieran mantentzen dena (esp. *el perro se divirtió rompiendo los zapatos*, it. *mi annoio ascoltandoti*).
2. Funtzio honetatik eratorri zen *ablativus modi* funtzioa, zeinaren arabera adierazten den aditz nagusiarekin batera garatzen den bigarren ekintza bat, aditz honen instrumentu bat izan gabe (esp. *hablaba corriendo deprisa*, it. *dormendo muoveva la gamba*, fr. *de nombreux ouvriers, chantant et le bras nu, travaillaient*).
3. Mugimendu edo atsenaldiko aditz batzuk *ablativus modi*–rekin konbinatuta zenbait aditz–aspektuak sortzeko balio dute, adibidez:

<sup>2</sup> Lehen azaldu den moduan, forma hauek ez dira latinezko gerundiotik garatu baina hauekin batera jartzen ditugu gaur egun funtzio berdina betetzen dutelako.

- a. *esse* + gerundioa edo *stare* + gerundioa ekintza bat garatzen den bitartean adierazteko (esp. *está lloviendo*, it. *non ti posso chiamare ora, sto scrivendo*, gaur egungo frantsesean partizipiozko konbinaziotzat hartzen da).
- b. *ire* + gerundio ekintza baten garapena eta bere intentsitatea handitzen ari dela adierazteko erabiltzen da hiru hizkuntza hauetan (esp. *me voy a ir yendo*, it. *il dolore anda scomparendo*, fr. *le bruit va croissant*).

## Ezaugarri berritzaileak

Ezaugarri berritzaileei dagokienez, zortzi atal ikusiko ditugu: konjugazioen berregokitzapena, forma ez-personalak, indikatiboko modua, subjuntiboko modua, geroaldia, baldintzazko formaren agerpena, denbora konposatuak eta pluskuanperfektua.

### Konjugazioen berregokitzapena

Konjugazioei dagokienez, infinitiboaren garapenaren atalean ikusi da gutxi gorabehera nola garatu ziren konjugazioak, baina atal honetan hobeto deskribatuko da aldaketa hau.

Latineko lau konjugazioak berez italieran eta frantsesean mantendu ziren, gaztelanian, geroago aztertuko den moduan, aldaketa handiagoak izan zituen.

1. Konjugazioa: (*cantare, iurare*) –*āre* > it. –*āre* (*cantāre, giurāre*), esp. –*ār* (*cantār, jurār*), fr. –*ér* (*chantér, jurér*).

2. Konjugazioa: (*habere, debere*) –*ēre* > it. –*ēre* (*avére, dovére*), esp. –*ér* (*habér, debér*), fr. –*oir* (*avoir, devoir*).

3. Konjugazioa: (*vendere, ungere*) –*ēre* > it. –*ere* (*véndere, úngere*), fr. –*re* (*véndre, oíndre*).

4. Konjugazioa: (*dormire, sentire*) –*īre* > it. –*īre* (*dormíre, sentíre*), esp. –*ír* (*dormír, sentír*), fr. –*ír* (*dormír, sentír*).

Gaztelanian, goian ikusi den moduan, soilik 3 konjugazio mantendu ziren hirugarren konjugazioa (–*ēre*) “galdu” ondoren, hemen zeuden aditzak 2<sup>o</sup> eta 4<sup>o</sup> konjugazioetan sartu baitziren: lat. *véndēre* > esp. *vendér* eta lat. *úngēre* > esp. *ungír*. Konjugazio hauen nahasketa totala lehenagoko latin hiztunen bi konjugazio hauek nahasterako joera baten

emaitza erradikala da, alegia, italieran eta frantsesean ere ikus daitezke nahasketa honen ondorioz garatu diren zenbait aditz.

Alde batetik, badaukagu 2º konjugazioko aditz batzuk 3º konjugaziora pasatu zirenak: lat. *respondēre* > \**respōndere* > it. *rispōndere*, fr. *répondre* edo lat. *mordēre* > \**mórdere* > it. *mórdere*, fr. *mórdre*. Aditz hauetan zehazki, beste batzuekin batera, aldaketa hau aurre-erromantzean eman zela ikus daiteke. Bestalde, aurre-erromantze fasean ere emandako alderantzizko aldaketa hauteman daiteke, hau da, 3º konjugaziotik 2º konjugaziora pasatutako aditz multzo bat aurki daiteke, hauen artean: lat. *sápĕre* > \**sapĕre* > it. *sapĕre*, fr. *savoir* edo lat. *cádĕre* > \**cadĕre* > it. *cadĕre*, fr. *cheoir*. Izan ere, aldaketa honetan aipatu beharrekoa da analogia, fenomeno hau dela eta konjugazioen nahasketa eman baita, *habĕre* eta *tacĕre* bezalako aditzak, erroan *-a-* bokala dutenak *sapĕre* eta *cadĕre* moduan, eragina izan baitzuten.

Ikus daiteke, era berean, lehenengo pertsonan desinentzia baino lehen *-i-* bat zuten 3º konjugazioko aditzak 4º konjugaziora pasatzea orokorra zela aurre-erromantzean (lat. *fugere/fugio* > \**fugĭre/fugio* > it. *fuggire*, esp. *huir*, fr. *fuir*) eta arrazoi honengatik aurkitzen dugu baita aldaketa hau 2º konjugazioan zeuden aditz batzuk 4º konjugaziora pasatu zirenak (lat. *florĕre/florio* > *florĭre/florio* > it. *fiorire*, fr. *fleurir*).

Konjugazioen aldaketekin bukatzeko, aipatu behar da latin berantiarrean jadanik aurki daitekeela konjugazioen zatiketa bat emankortasunaren arabera, alegia, alde batetik aurkitzen ziren aditz eraketa berrien sorkuntza jasan eta baimentzen zituzten konjugazioak, eta, bestalde, halakoa baimentzen ez zituztenak. Lehenengo konjugazioa emankorra zen, horrela aurkitzen ditugu adibidez frantsesean *borner* aditza *borne* izenetik. Bestelako aditz forma emankorra bat geografikoki banatuta aurkitzen dugu, gaztelanian (baita sardoan eta portugesan) *-escere* atzizkia emankorra baitzen, bestelako hizkuntza-erromantzeetan, hauen artean italiera eta frantsesa, *florĕsco/florĭre* motako aditzeei egokitzen zaiena. Azkenik, aditz deponente klasikoak konjugazio aktibora pasatu ziren, horrela latineko *sequi*, *nasci* edo *mori* bezalako aditzak, gaur egun italieran *seguire*, *nascere* eta *morire*; gaztelanian *seguir*, *nacer* eta *morir* eta frantsesean *suivre*, *naître* eta *mourir* modu aktiboan aurkitzen ditugu.

### **Indikatibo modua**

Indikatiboko moduan hauteman daitezke zenbait aldaketa denbora ezberdinetan eta atal honetan ikusiko dira zehazki orainaldiko, lehenaldi burutugabe eta lehenaldi burutuan

eman ziren aldaketa hauek italieran, gaztelanian eta frantsesean. Geroaldiak atal bat aparte merezi du, bere aldaketa handiagoa izan baitzen eta, latinean existitzen ez zen, kondizional denborarekin batera aztertuko da.

### *Orainaldiko denbora*

Lehenago aztertu den moduan, latinez lau konjugazio aurkitzen ziren eta hizkuntza-erromantzeak konjugazio hauek mantendu dituzte gutxi gorabehera, hizkuntza batzuek beste batzuk baino hobeto. Izan ere, aipatu beharrekoa da hirugarren konjugazio barruan zegoen bereizketa baita latinean bera, bereizketa honen arrazoia zela-eta, geroago eman baitziren aldaketa konkretu batzuk. Bereizketa hau egiten zen aditz batzuetan lehenengo pertsona singularra eta hirugarren plurala ezberdinak zirelako (lat. *vendere*: *vendo*, *vendis*, (...), *vendunt* baina lat. *recipere*: *recipio*, *recipis*, (...), *recipiunt*) eta bi pertsona hauetan laugarren konjugazioko aditzen antza zuten. Honek, jadanik aipatu den bezala, gaztelanian, adibidez, hirugarren konjugazio honen desagerpena ekarri zuen, hirugarren konjugazioko bigarren aditz mota hauek laugarren konjugazioko aditzekin batera sartzearekin batera.

Bestalde, oso garrantzitsua da azentuaren izaera bi arrazoi nagusiengatik: lehen, latinaren “azken-aurreko legea”-ren arabera, lehenengo, bigarren eta laugarren konjugazioetan ikusten da azentua erroan agertzen dela hiru pertsona singularretan eta hirugarren pertsona pluralean eta fenomeno honen ondorioz, hauteman daitezke aldaketak bokal azentudun hauetan eta ez beste bi pertsonetan, horrela, gaztelanian, azaldu daiteke zergatik *-ue-* aurkitzen den *volver* aditzaren pertsona singularretan (*vuelvo*, *vuelves*, *vuelve*) eta hirugarren pluraleran (*vuelven*) eta *-o-* beste bietan (*volvemos*, *volvéis*); bigarren arrazoia, lege honen arabera berriz ere, hirugarren konjugazioan ikusten dugu forma guztiak rizotonikoak direla, lehenengo eta bigarren pertsona pluralak barne, baina konjugazio honen ezaugarri hau denborarekin galtzen da eta, beste konjugazioei egokitzeko, azkenean bi forma hauek arrizotonikoak bihurtzen dira (*vendimus* > *vendimus* eta *venditis* > *venditis*).



## Italiera

Taula 14: Italierako indikatibo orainaldia

I		II	
Lavāre	Lavare	Tīmēre	Temere
lavō	lavo	tīm(ē)ō	temo
lavās	lavi	tīmēs	temi
lavāt	lava	tīmēt	teme
lavāmus	laviamo	tīmēmus	temiamo
lavātis	lavate	tīmētis	temete
lavānt	lavano	tīmēnt	temono
III		IV	
Vendēre	Vendere	Partīre	Partire
vendō	vendo	part(ī)ō	parto
vendīs	vendi	partīs	parti
vendīt	vende	partīt	parte
vendīmus	vendiamo	partīmus	partiamo
vendītis	vendete	partītis	partite
vendūnt	vendonno	part(ī)ūnt	partono

Taula honetan erakusten da orainaldiko indikatiboko formak latinez eta italieraz, baina, azpimarratzen den moduan, badaude zenbait aspektu azaldu behar direnak.

1. Lehen pertsona singularra II. eta IV. konjugazioetan (baita lehen aipatutako hirugarrenaren bigarren taldea: *recipio*) *-ē-* eta *-ī-* azentugabeak dituzte eta hauek yod bihurtu eta inoiz ez direnez mantentzen aldaketarik gabe, bi emaitza ikusten dira:
  - a. Erro bukaerako kontsonantea eraldatzen du (lat. *taceo* > it. *taccio*)
  - b. Desagertzen da (lat. *timeo* > it. *temo*)
2. Bigarren pertsona singularra latinean *-as*, *-es* eta *-is* zituen bukaeran, baina italieran aurkitzen dena *-i* da. Beste hitz batzuetan ikus daiteke *-s* > *-i* aldaketa

(lat. *pos(t)* > it. *poi*, lat. *nos* > it. *noi*), beraz esan daiteke aldaketa erregularra zela italieran, eta kasu honetan horrela uzten zuen paradigma:

- a. *lavas* > \**lavai* > *lave*
- b. *times* > \**timei* > *temi*
- c. *vendis* > \**vendei* > *vendi*
- d. *partis* > \**partii* > *parti*

Antzeman daiteke I. konjugazioaren emaitza ez dela gaur egungo italieran aurkitzen den forma baizik eta italiara zaharrean izandakoa gerora, analogiaz, beste konjugazioekin bat egiteko, *lavi* formara aldatu zena.

3. Hirugarren pertsona pluralean amaierako *-t* galtzen da.
4. Latineko lehenengo pertsona pluralean *-mus* amaiera aurkitzen da, lehen aipatutako amaierako *-s* > *-i* aldaketaren ondorioz *-moi* > *-mo* emango lukeena. Izan ere, ez da hori aurkitzen dena gaur egun, italiara zaharretik gaur egungo italierara emandako aldaketa subjuntiboko formen eskuhartze baten ondorioz da:

- a. *lavemus* > \**lavemo*
- b. *timeamus* > *temiamo*
- c. \**vendeamus* > *vendiamo*
- d. *partiamus* > *partiamo*

Hauteman daiteke azkenengo hiru konjugazioak *-iamo* amaiera daukatela (geroago lehenengo konjugazioan emango zena analogiaz) eta baliteke subjuntiboak zuen funtzio exortatiboaren eraginez amaiera hau indikatiboko formetara pasatzea.

5. Inperatiboaren atalean azaldu den moduan, hemen ikusten dugu beste eskuhartze bat, espero baitzen \**lavati*, \**temeti*, \**vendeti* eta \**partiti* eta ikusten dena, aldiz, inperatiboaren eraginez, beste forma batzuk.
6. Arraroa dena hirugarren pertsona pluralean amaierako *-o* hori litzateke, ez baita aurkitzen latinez. *Essere* aditzaren eraginez ematen da hau:

- a. 1. sg: *sum* > *son*
- b. 3. pl *sunt* > *son*

Beste lehenengo pertsonen eraginez (*-o* bukaera baitzuten), *son* > *sono* bihurtu zen, bai lehenengo pertsonan, bai hirugarren pertsonan. *-unt* amaiera ikusten den konjugazioetan (III eta IV, gero II. ere hartuko zuena) *-ono* amaiera hartu zuten

*sono* aditzaren eraginez eta I. konjugazioak, analogiaz ere *-o* jarri zuen amaieran, horrela aurkitzen dugu *lavano*, *temono*, *vendono* eta *partono*.

## Gaztelania

Taula 15: Gaztelaniako indikatibo orainaldia

I		II		III	
lavāre	lavar	dēbēre	deber	partīre	partir
lavō	lavo	dēb(ē)ō	debo	part(ī)ō	parto
lavās	lavas	dēbēs	debes	partīs	partes
lavāt	lava	dēbēt	debe	partīt	parte
lavāmus	lavamos	dēbēmus	debemos	partīmus	partimos
lavātis	laváis	dēbētis	debéis	partītis	partís
lavānt	lavan	dēbēnt	deben	part(ī)ūnt	parten

Gaztelanian soilik hiru konjugazio aurkitzen dira, aipatu den moduan lehen eta, taulan argi ikusten denez, ez dira ematen aldaketa handirik, baina egon badaude:

1. Singularreko formetan nabarmena den fenomeno bakarra hirugarren pertsonaren amaierako *-t*-ren galera da.
2. Pluraleko formetan, lehenengo pertsonan *-u-* > *-o-* bihurtzen da eta, berriro ere, hirugarren pertsonan *-t* galtzen da. Bigarren pertsonan ikusten den aldaketa naturala hurrengoa da:
  - a. *lavātis* > *lavades* > *laváis*
  - b. *debētis* > *\*debédis* > *debéis*
  - c. *partītis* > *\*partídís* > *\*partíís* > *partís*
3. Hirugarren konjugazioaren hirugarren pertsona pluralean ikusten dugu aldaketa bat, *-en* bukaera baitu bigarren konjugazioaren eraginez.

## Frantsesa

Taula 16: Frantsesaren indikatibo orainaldia

I			II		
portāre	porter	[pɔrte]	vīdēre	voir	[vwar]
portō	porte	[pɔrt]	vīd(ē)ō	vois	[vwa]
portās	portes	[pɔrt]	vīdēs	vois	[vwa]
portāt	porte	[pɔrt]	vīdēt	voit	[vwa]
portāmus	portons	[pɔrtɔ̃]	vīdēmus	voyons	[vwajɔ̃]
portātis	portez	[pɔrte]	vīdētis	voyez	[vwaje]
portānt	portent	[pɔrt]	vīdēt	voient	[vwa]
III			IV		
concludēre	conclure	[kɔ̃klyʁ]	servīre	servir	[sɛrvir]
concludō	conclus	[kɔ̃kly]	serv(ī)ō	sers	[sɛr]
concludīs	conclus	[kɔ̃kly]	servīs	sers	[sɛr]
concludīt	conclut	[kɔ̃kly]	servīt	sert	[sɛr]
concludīmus	concluons	[kɔ̃klyɔ̃]	servīmus	servons	[sɛrvɔ̃]
concludītis	concluez	[kɔ̃klye]	servītis	servez	[sɛrve]
concludūnt	concluent	[kɔ̃kly]	serv(ī)ūnt	servent	[sɛrv]

Frantses zaharrear azkenengo silabaren bokala *-a-* bazen, hau [ə] bihurtzen zen, horrela, I. konjugazioaren bigarren eta hirugarren pertsona singularrak garatu ziren [ə] bukatu arte baina lat. *intro* > fr. *entre* bezalako aditzen eraginez, [ə] hau *porter* motatako aditzeei hedatu zen (*porto* > *port* > *porte*). Hala ere, frantsesaren eboluzio fonetikoa dela eta, gaur egun hiru pertsona singularrak berdin ahoskatzen dira: [pɔrt].

II., III. eta IV. konjugazioak batera doaz, alegia, eboluzio berdina izan zuten pertsona singularretan aditzak *-a* batekin ez zirelako amaitzen eta hortaz, ez zelako aldaketa fonetiko hori ematen. Kasu hauetan azken silabaren bokala desagertzen zen eta morfologizazio prozesu honen ondoren ikusten zena *-ø*, *-s* eta *-t* desinentziak ziren. Izan ere, geroago *-s* bukaera lehenengo pertsonara hedatu zen eta gaur egun horrela idazten da, nahiz eta ez ahoskatu.

Pluraletan ikusi ahal dena da, alde batetik lehenengo pertsonaren *-ons* amaiera ez dela latineko lehenengo pertsona pluraletik garatzen, baizik eta *être* aditzetik (lat. *sumus* > fr. *sons*) eta hemendik konjugazio guztietara hedatu zela. Bestalde, bigarren pertsonaren morfema *-etis* > *[-ets]* > *[-e]* (*-ez* idatzita) izatera pasatu zen konjugazio guztietara analogiaz eta, azkenik, hirugarren pertsonan hauteman daiteke konjugazio guztiak *[-ant]* izatera pasatu ziren eta, denborarekin, *-ent* mantentzen da idatziz baina fonetikoki garatzen jarraitu zen morfema honen ahoskera desagertu arte.

### *Lehenaldi burutugabea*

Indikatiboko denbora honetan eman ziren aldaketak nahiko erregularrak dira hizkuntza hauetan. Aurki daiteke IV. konjugazioako *-iebam* amaiera garatu zela *-ibam* italieran eta gaztelanian eta *-ebam* frantsesean. Era berean, III. konjugazioak ere *-iebam* alde batera utzi eta *-ebam* hartu zuen hiru hizkuntzatan.

Taula 17: Latina eta hiru hizkuntzen indikatibo lehenaldi burutugabea

Latina	Italiera	Gaztelania	Frantsesa
cantare	cantare	cantar	chanter
cantābam	cantavo	cantaba	chantais
cantābās	cantavi	cantabas	chantais
cantābat	cantava	cantaba	chantait
cantābāmus	cantavamo	cantābamos	chantions
cantābātis	cantavate	cantābais	chantiez
cantābant	cantavano	cantaban	chantaient
vidēre	vedere	ver	voir
vidēbam	vedevo	veía	voyais
vidēbās	vedevi	veías	voyais
vidēbat	vedeva	veía	voyait
vidēbāmus	vedevamo	veíamos	voyions
vidēbātis	vedevate	veíais	voyiez
vidēbant	vedevano	veían	voyaient
partīre	partire	partir	partir
partiēbam	partivo	partía	partais

partiēbās	partiv <i>i</i>	partías	partais
partiēbat	partiva	partía	partait
partiēbāmus	partivamo	partíamos	partions
partiēbātis	partivate	partíais	partiez
partiēbant	partivano	partían	partaient

### Italiera

Italierak, hasteko, latinaren azentu eredua mantendu zuen, alegia, azentua azken–aurreko silaban erortzen da: *cantavámo*, *cantaváte*. Badaude zenbait aldagetak latineko formatik ez datozenak: bigarren pertsona singularraren *-i*, pluralaren *-te* eta hirugarren pertsona pluralaren *-no* bukaerak orainaldiko formatatik hedatu ziren lehenaldi burutugabera. Lehenengo pertsona singularrean berdina ikusten dugu, *-o* amaiera *-a* izan beharrean.

### Gaztelania

Italierak ez bezala, gaztelaniak azentua erregulatu zuen forma guztietan bokal tematikoan erori zezan: *cantábamos*, *cantábais*. Taulan ikusten den moduan, *-b-* soilik I. konjugazioan mantendu da, beste konjugazioetan galdu da eta ondoriozko *-ea-* eboluzionatu zen gar egungo *-ia-* eman arte: lat. *partiebam* > \**partibam* > \**partiba* > esp. *partía*.

### Frantsesa

Gaur egungo frantsesean ikus daiteke konjugazio guztiak lehenaldi burutugaberako amaiera berdina dutela, izan ere, batasun hau ez zen beti horrela izan, frantses zaharrean eskualdez eskualde aldatzen baitziren konjugazioak markatzeko formak. Inposatu zen aldaera eskualde zentralaren frantses zaharra izan zen, amaiera berdinak zituenak konjugazio guztietan *-ebam* hedatu ondoren I. eta IV. konjugazioetara.

Izan ere, taulan beran ikusten dugu frantses modernoak aldaketa fonetiko asko izan dituela egungo fasera ailegatu arte. Lehenengo *-b-* interbokalikoa galtzen da, gero [e] azentuduna [ej] ematen du eta silaba amaierako [a] azkenean [ə] izatera garatzen da.

*-ébam* > [éβa] > [éa] > [éja] > [ejə]

Horrela, ikusten da frantses zaharrak hurrengo amaierak zituela [ej] > [oj] bihurtu baino lehen eta [e] [i] bihurtu ondoren lehenengo eta bigarren pertsona plural azentugabeetan:

-eie > -oie  
 -eies > -oies  
 -ei(e)t > -oi(e)t  
 -iiens > -iiens  
 -iiez > -iiez  
 -eient > -oient

Frantses zaharreen, parentesiekin markatu den moduan goian, *-eit* eta *-oit* ohikoagoak ziren *-eiet* edo *-oiet* baino, eta aldaketa hau lehenengo eta bigarren pertsona singularretara hedatu zen *-oi*, *-ois*, *-oit* emanez.

Azkenik, paradigma hori ez da gaur egungo paradigma beste aldaketa batzuk eman zirelako geroago: [e] azentuduna silaba libre batean garatzen da normalean, hainbat aldaketen bidez, [wa] izatera:

lat. *me* > [me] > [mej] > [moj] > [moε] > [mwε] > [mwa]

Hala ere, inperfektuen kasuan ikusten dena [oε] bihurtu zenean [wε] XIII. mendean, aldaera sozialak sortu zirela da. Hasieran aldaera hauek, [wa] eta [ε], soilik jende xehean hautematen zen, baina denborarekin, eta baliteke italiar eraginaren bidez XVI. mendean, gortean ere zabaldu ziren. Denborarekin aldaerak hitz ezberdinetara egokitu zitzairen eta lehenaldi burutugabeak [ε] hartu zuen.

### *Lehenaldi burutua*

Denbora honetan garrantzitsua da berriro ere forma rizotoniko eta arrizotonikoen arteko ezberdintasuna markatzea, arrizotonikoak forma “erregularrak” bihurtu baitziren italieran eta gaztelanian. I. eta IV. konjugazioek forma arrizotonikoak zituzten batez ere eta espero beharko genituzke II. eta III. konjugazioetan ere halako formak, baina kasu hauetan urriagoak ziren eta galdu ziren aurre-erromantzean. Izan ere, batzuk berreskuratu ziren italieran.

Forma ahulek (arrizotonikoak) bazeukaten forma luze eta motzak baita latin pre-klasikoan, forma motzak berriagoak eta denborarekin hedatuagoak izan ziren eta hauetatik garatzen dira gaur egungo italiara, gaztelania eta frantses lehenaldi burutuaren paradigmak:

Taula 18: Latina eta hiru hizkuntzen indikatibo lehenaldi burutua

Forma luzeak	Forma motzak	Italiera	Gaztelania	Frantsesa
cantāre		cantare	cantar	chanter
cantāvī	cantai	cantai	canté	chantai
cantāvistī	canta(i)sti	cantasti	cantaste	chantas
cantāvit	canta(u)t/Cantait	cantò	cantó	chantā
cantāvimus	canta(i)mus	cantammo	cantamos	chantâmes
cantāvistis	cantastis	cantaste	cantasteis	chantâtes
cantāvērunt	cantarunt	cantarono	cantaron	chantèrent
partīre		partire	partir	partir
partīvī	partii	partii	partí	partis
partīvistī	partisti	partisti	partiste	partis
partīvit	parti(u)t/partiit	partì	partió	partit
partīvimus	partiimus	partimmo	partimos	partîmes
partīvistis	partistis	partiste	partisteis	partîtes
partīvērunt	parti(e)runt	partirono	partieron	partirent

Forma rizotonikoak oso idiosinkratikoak dira, paradigma bakoitza arretaz aztertu beharko zen ulertzeko eta lan honek aditz–morfologiaren ikuspegi orokorra erakutsi nahi duenez, hizkuntzaz hizkuntza ikusiko ditugun forma bakarrak ahulak izango dira.

### Italiera

Forma motzetatik garatu ziren gaur egungo *passato remoto*–ko formak eta, taulan ikusten den moduan, emandako aldaketak oso urriak dira. Lehenengo eta bigarren pertsona singularrak berdinak dira eta hirugarren pertsonan hauteman daitekeen aldaketak lat. *cantaut* > \**cantau* > it. *cantò* eta lat. *partiit* > \**partii* > it. *partì* dira.

Lehenengo pertsona pluralean dagoen geminatua ziurrenik [jm] > [mm] aldaketatik dator, gainera, *demmo* eta *stemmo* bezalako formak eragina izan zezaketen aldaketa honetan. Bigarren eta hirugarren pertsona pluralak orainaldi indikatiboko formen eragina izan zuten: lat. *cantastis* > *cantasti* > *cantaste* orainaldiko *cantate* formaren eraginez eta lat. *cantarunt* > \**cantaru* > *cantaro* > *cantarono cantano*–ren eraginez.



Bigarren konjugazioa ez da agertzen taulan analogiaz eraldatu zirelako *-e-* jarritz bokal tematikoaren lekuan eta desinentzia berdinak jarritz amaieran, paradigma erregularra sortuz.

### Gaztelania

Hemen ere aurkitzen da *pretérito*-ren formak latinaren lehenaldi burutuaren forma motzen garapenak eta forma erregularrak direla eta gehienak eboluzio fonetiko erregularra izan dute. Latineko *cantai* eta *partii* aditzen diptongoak monoptongatu egin ziren *canté* eta *partí* formetan, bitartean bigarren pertsona singularrean eta lehenengo pertsona pluralean ikusten da amaierako silaba azentugabearen aldaketa bokalean: lat. *cantásti* > esp. *cantaste*, lat. *cantámus* > esp. *cantamos*<sup>3</sup>. Bigarren pertsona pluralaren espero zen formak *-astes* eta *-istes* amaierak izan beharko zituzten, eta horrela izan zen XVII. mendera arte, gero, analogiaz beste denbora eta formekin, *-asteis* eta *-isteis* bihurtu ziren.

Hirugarren pertsonen formen jatorria eztabaidagarria izan da. Garapen zuzenena singularrean lehenengo konjugazioan lat. *cantaut* > esp. *cantó* izango litzateke, eta honen azentua gero hedatu zen hirugarren konjugaziora lat. *partiut* > esp. *partió*. Azkenik, pluralean, garapen zuzenena eta sinpleena: lat. *cantarunt* > esp. *cantaron* eta lat. *partierunt* > esp. *partieron*.

### Frantsesa

Hizkuntza honetan badaude aipatu beharreko bi berrikuntza: alde batetik, perfektuko aditzak hiru konjugazioko sistema batean sartzen ziren, latinez *-a*, *-e* eta *-i* (italieraz eta gaztelania zaharran bezala) eta frantsesean eraldatu eta *-a*, *-u* eta *-i* sistema batean sartzen dira eta, bestalde, aditz burutu rizotonikoak *-u* eta *-i* konjugazioetan sartzen dira.

Lehenengo konjugazioak, oso ugaria eta irekia zena, ia aditz guztiak perfektu ahulak zituen eta gaur egungo frantsesean *-er* konjugazioaren *passé simple*-n mantentzen dira. Bestelako aditz perfektuak *passé simple*-ko beste bi konjugazioetan sartzen dira, bakoitzak bere ezaugarri bereizgarriekin: [y] eta [i] bokal tematikoekin.

Sortu berri zen *passé simple*-ko [y] konjugazioa latineko waw perfektuetatik dator, hala nola *valui* edo *molui*. Latin arruntean [w] bokal tematikotzat hartzen hasi zen [u] moduan

---

<sup>3</sup> Hala ere, Alkire eta Rosen-en (2010) arabera, beste garapen bat eman zen: testigatutako *cantaímus* formatik *cantemos* formara garatu zen eta, handik, gaur egungo *cantamos*.

eta hemendik forma motzak sortuz beste konjugazioetan bezala, [u] bokala azentuduna bihurtuz:

Taula 19: Latinaren –u aditzen laburketa

Latina	Forma motzak
váluí	valúí
valuísti	valústi
váluit	valút
valuímus	valúmus
valuístis	valústis
valúerunt	valúrent

*Passé simple*–aren konjugazio berri honen sorreraren zergatiak bi dira: azentu patroia beste konjugazioen berdina da eta hutsik geratu zen hutsunea betetzen du. Gainera, lehenaldi burutu sintetikoaren eta lehenaldiko partizipioen arteko harremana estua izanda, sistema honekin partizipioen hiruko sistema mantentzen da: *–atu*, *–itu*, *–utu*. Beraz, baliteke partizipioek ere eragina izan zezaketela –u konjugazio honen sorreran eta ezarketan eta waw zuten aditz perfektu rizotoniko askok konjugazio honetan sartu ziren perfektu ahul moduan.

Amaierei dagokienez, lehenengo konjugazioan (*–er* aditzak) hauteman daitezke aldaketa erregularrak latinetik gaurko frantsesara. Singularreko formetan, lehenengo pertsonaren amaiera [aj] > [e] bihurtzen da, bigarren pertsonarentzat espero beharko litzateke *\*chantast* baina *–s* bigarren pertsonaren marka zenez, *–t* kendu eta *chantas* geratu zen. Hirugarren pertsonan [t] leundu eta [θ] bihurtu zen desagertu baino lehen: lat. *canta(u)t* > *\*cantat* > *\*chantat* [ʃã.taθ] > fr. *chanta* [ʃã.ta]. Hirugarren pertsona pluralean daukagun forma *chantèrent* da, latineko *cantarunt*–tik datorrena, aldaera dialektala *chantarent*–i irabazi eta gero.

Beste bi konjugazioetan (*–i* eta *–u*) pluraleko formak eta bigarren pertsona singularraren amaierak goian azaldutako berdinak dira, jatorri berekoak, baina lehenengo eta hirugarren pertsona singularrak ez. Latinez ez zegoen *–s* lehenengo pertsona singularraren amaiera gisa, amaiera hau indikatiboko orainaldi eta lehenaldi burutugabearen eraginez eman zen, analogiaz. Honez gain, baliteke perfektu rizotonikoen eragina ere izatea non lat. *misi* > fr. *mis*, lat. *dixi* > fr. *dis* edo lat. *feci* > fr. *fis* formak aurkitzen ditugu, *–s* hori etimologikoa

dena. Hirugarren pertsona singularrean ikusten da  $-t$  mantentzen dela, nahiz eta hasieran desagertu; itzulera hau baliteke analogiaz izatea berriro ere indikatiboko orainaldi eta lehenaldi burutugabearen  $-s$ ,  $-s$ ,  $-t$  paradigmaren eraginez.

### Subjuntibo modua

Latineko modu hau hizkuntza erromantzeetan mantentzen da eta hainbat denbora aurki daitezke, baina forma sintetiko bakarrak orainaldi eta lehenaldi burutugabea dira, beste bi denborak (lehenaldi burutua eta pluskuanperfektua) ez dira atal honetan garatuko.

#### *Orainaldia*

Subjuntiboko orainaldia indikatiboko orainaldia islatzeko modu batean garatu zen, alegia, gaur egun aurki daitekeen erlazioa bien artean eratorpenekoa dela esan daiteke.

Taula 20: Latina eta hiru hizkuntzen subjuntiboko orainaldia

Konjugazioa	Latina	Italiera	Gaztelania	Frantsesa
	cantāre	cantare	cantar	chanter
I	cantem	canti	cante	chante
	cantēs	canti	cantes	chantes
	cantet	canti	cante	chante
	cantēmus	cantiamo	cantemos	chantions
	cantētis	cantiate	cantéis	chantiez
	cantent	cantino	canten	chantent
	vidēre	vedere	ver	voir
II	videam	veda	vea	voie
	videās	veda	eas	voies
	videat	veda	vea	voie
	videāmus	vediamo	veamos	voyions
	videātis	vediate	veáis	voyiez
	videant	vedano	vean	voient
	vēndere	vendere	vender	vendre
	vēndam	venda	venda	vende
	vendās	venda	vendas	vendes

IIIa	vēndat	venda	venda	vende
	vēndāmus	vendi <b>amo</b>	vendamos	vendions
	vēndātis	vendi <b>ate</b>	vendáis	vendiez
	vēndant	vendano	vendan	vendent
	recipere	recivere	recibir	recevoir
IIIb	recipiam	riceva	reciba	reçoive
	recipiās	riceva <b>a</b>	recibas	reçoives
	recipiat	riceva	reciba	reçoive
	recipiāmus	riceviamo	recibamos	recevions
	recipiātis	riceviate	recibáis	receviez
	recipiant	ricevano	reciban	reçoivent
	partīre	partire	partir	partir
IV	partiam	parta	parta	parte
	partiās	parta <b>a</b>	partas	partes
	partiat	parta	parta	parte
	partiāmus	partiamo	partamos	partions
	partiātis	partiate	partáis	partiez
	partiant	partano	partan	partent

### Italiera

Lehenengo eta bigarren pertsona pluralen amaierak (*-iamo, -iate*) latineko II., IIIb. eta IV. konjugazioetatik garatzen dira (*-eāmus, eātis* eta *-iāmus, iātis*) eta beste konjugazioetara hedatzen dira oso goiz. Amaiera hau hedatzen da baita aditz irregularretara: *siamo, siate (essere), stiamo, stiate (stare), diamo, diate (dare)*... ez dira latineko formetatik garatzen (*sīmus, sītis (esse), stēmus, stētis (stāre), dēmus, dētis (dare)*). Honez gain, aipatu beharrekoa da lehenengo pertsona plurala amaierako forma indikatiboko paradigmatara hedatu zela ere bai.

Pertsona singularretan ikusten dena guztiak forma bera dutela da, alegia, parekatu dira eta garapen honen izaeraren zergatia indikatiboarekin konparatuz aurki daiteke. Bigarren pertsonan erreparatuz gero, ikus daiteke I. konjugazioa izan ezik, beste formen amaierak ez direla espero daitezkeenak: *videās > vede, vēndās > vende, recipiās > riceve* eta *partiās > parte*, forma hauek bazeuden italiera zaharran baina indikatiboko hirugarren pertsona

singularraren forma bera zutenez, azkenean subjuntiboko lehenengo eta bigarren pertsonen forma bera hartu zuten (*veda, venda, riceva* eta *parta*). Lehenengo konjugazioan, aldiz, kontrakoa gertatu zen: lehenengo eta hirugarren pertsonak *cante* forma zuten baina italiara zaharraren indikatiboko bigarren pertsonarekin bat egiten zutenez, aldatu eta bigarren pertsonaren forma hartu zuten (*canti*). Hirugarren pertsona pluralaren *canteno* analogiaz *cantino* bihurtu zen.

### Gaztelania

Gaztelanian argi ikusten da amaierak latinetik garatu direla irregulartasunik gabe. Salbuespen bakarra yod dituzten aditzak dira non yod–a desagertu den: lat. *videat* > esp. *vea* edo lat. *partiat* > esp. *parta*.

### Frantsesa

II., IIIa., IIIb eta IV. konjugazioen pertsona singularren amaieran agertzen den [ə] azkenean, analogiaz, I. konjugaziora ere hedatu zen. Lehenengo pertsona pluralean espero beharko zen:

I. *–ēmus* > [ejns]

II./IIIb./IV. *–eamus, –iamus* > [jens]

IIIa. *–amus* > [ens] / [jens]

Hala ere, mendebaldean *–ons* amaierak besteak ordezkatu zituen eta bestelako eremuetan *–iens* inposatu zen. Bi hauen nahasketatik gaur egungo *–ions* [jɔ̃] jaio eta inposatu zen. Bigarren pertsona pluralak frantses zaharran ziren:

I. *–ētis* [ojts]

II./IIIb./IV. *–eatis, –iatis* > [jets]

IIIa. *–atis* > [ets] / [jets]

Lehenengo pertsonaren amaieraren eraginez, *–ions*, kasu honetan *–iez* [jets] inposatu zen eta gaur egungo [je] izatera garatu zen. Hirugarren pertsona pluralean garapen erregularra ikus daiteke, [ə] batekin analogiaz beste formekin.

### Lehenaldi burutugabea

Hizkuntza erromantzeek subjuntiboko lehenaldi burutugabearen zentzua mantentzen dute baina aditzen forma ez dira latineko denbora honetatik garatzen baizik eta beste bi denboretatik: subjuntiboko pluskuanperfektutik eta indikatiboko pluskuanperfektutik (gaztelaniak soilik). Denbora hauek *perfectum* sistemaren parte ziren, beraz aurkitzen diren erroak *perfectum* erroak ziren eta hauetako batzuk “irregulartzat” hartzen dira azkenean.

Hala ere, *perfectum* erroen gehiengoa forma ahulak ziren [aw] eta [iw] motatakoak, gerora forma motzek ordezkatu zituztenak [w] gabe. Honek esan nahi du azkenean ez zegoela ezberdintasuna *infectum* eta *perfectum* erroen artean eta horregatik, hizkuntza erromantzeetan erregulartzat hartzen dira.

Taula 21: Latina eta hiru hizkuntzen subjuntiboko lehenaldi burutugabea

Forma luzeak	Forma motzak	Italiera	Gaztelania	Frantsesa
cantāre		cantare	cantar	Chanter
cantāvissem	cantassem	cantassi	cantase	chantasse
cantāvisses	cantasses	cantassi	cantases	chantasses
cantāvisset	cantasset	cantasse	cantase	chantât
cantāvissēmus	cantassemus	cantassimo	cantásemos	chantassions
cantāvissētis	cantassetis	cantaste	cantaseis	chantassiez
cantāvissent	cantassent	cantassero	cantasen	chantassent
partīre		partire	partir	partir
partīvissem	partissem	partissi	partiese	partisse
partīvisses	partisses	partissi	partieses	partisses
partīvisset	partisset	partisse	partiese	partît
partīvissēmus	partissemus	partissimo	partiésemos	partissions
partīvissētis	partissetis	partiste	partieseis	partissiez
partīvissent	partissent	partissero	partiesen	partissent

### Italiera

Gaur egun existitzen ez den italierako subjuntiboko perfektuaren amaierekin zegoen nahastea zela-eta, inperfektuko formak amaiera ezberdinak izaten zituzten italiera

zaharran: *-sse* eta *-ssi* aurki daitezke bai lehenengo bai hirugarren pertsona singularretan. Egungo italierak *-ssi* lehenengo pertsona singulararentzat hartzen du eta *-see* hirugarren pertsonarentzat.

Badago forma bat *passato remoto*-rekin bat egiten duenak: bigarren pertsona plurala *-aste* eta *-iste* amaierekin, eta baliteke denbora honekin duen erlazioa dela eta hirugarren pertsona pluralaren amaiera ere *passato remoto*-ren eraginez gaur egun *-assero* eta *-issero* izatea.

Azkenik, ikusten da bigarren pertsona pluralaren garapenean [st] onartzen dela (lat. *cantassetis* > \**cantasti* > it. *cantaste*) baina ez da [sm] onartzen lehenengo pertsona pluralean (*cantassimo*).

### Gaztelania

Aipatu den moduan lehen, gaztelanian bi forma aurki daitezke subjuntiboko lehenaldi burutugaberako, bat latinaren subjuntiboko pluskuanperfektutik datorrena eta beste latinaren indikatiboko pluskuanperfektutik datorrena. Bi formen amaierak garapen erregularra izan dute.

Taula 22: Gaztelaniaren bigarren forma subjuntiboko lehenaldi burutugaberako

Forma luzeak	Forma motzak	Gaztelania
<b>cantāre</b>		<b>cantar</b>
cantāveram	cantaram	cantara
cantāverās	cantaras	cantaras
cantāverat	cantarat	cantara
cantāverāmus	cantaramus	cantáramos
cantāverātis	cantaratis	cantaraís
cantāverant	cantarant	cantaran
<b>partīre</b>		<b>partir</b>
partīveram	partieram	partiera
partīverās	partieras	partieras
partīverat	partierat	partiera
partīverāmus	partieramus	partiéramos
partīverātis	partieratis	partieraís
partīverant	partierant	partieran

Izan ere, aipatu beharrekoa da *-ir* konjugazioaren irregulartasun bat. Ikusten da goiko taulan waw galtzen dutela forma motzek eta horrek [ie] ematen duela, gero [je] diptongoa bihurtuko dena. Beste forman, subjuntibotik garatu dena, espero beharko zen \**partise*, \**partises*, etab... baina horren ordeaz aurkitzen dena *partiese* da. Diptongoa, beraz, subjuntiboko formara ere hedatu da analogiaz eta *pretérito*-ko *-ieron* bukaera *-er* eta *-ir* konjugazioen eraginez ere.

### Frantsesa

Hizkuntza honen kasuan aipatu behar da gaur egun subjuntiboko lehenaldi burutugabea ez dela erabiltzen ahoz, eta idatziz ere desagertzen ari da zaharkitutzat hartzen baita. Hala ere, frantses zaharran erabiltzen zen eta forma hauek aztertu daitezke.

Ikusten denez badirudi, hirugarren pertsona singular eta lehenengo eta bigarren forma pluralak izan ezik, beste guztiak garapen arrunta dutela. Lehenengo eta bigarren pluralen amaierak analogiaz forma horiekin aurkitzen ditugu: *-ions*, *-iez*, beste denbora batzuetan aurkitu ditugun moduan.

Hirugarren pertsona singularra, bestalde, ez du *-ss-* erakusten. Lehenengo eta bigarren pertsona singularrak, egia esan, \**chantas* eman behar izan zuten biek, baina homonimia saihesteko, *-ss-* formak mantendu zituzten [ə] gehituz. Hirugarren pertsonak, aldiz, garapen hori mantendu eta *chantât* eman zuen, ez baitzegoen homonimiaren arriskurik forma horrekin.

## **Geroaldia eta baldintzazko formaren agerpena**

### *Geroaldia*

Latinezko geroaldi sintetikoa ez zen oso erabilia eta denbora pasa ahala, baztertu egin zen, bai *infectum*, bai *perfectum* sistemaren geroaldia. Latin arruntan, batez ere, ikusten da ez zuela arrakasta handirik eta horregatik, denbora hau adierazteko, forma perifrastiko berriak sortu ziren. Forma hauek aditza nagusiaren infinitiboko forma hartzen zuten alde batetik eta, bestetik, *habeo* aditzaren orainaldiko forma motzak aditz laguntzailea sortzeko.



Taula 23: Latina eta hiru hizkuntzen geroaldiko formak

Latin arrunta	Italiera	Gaztelania	Frantsesa
cantar-*[ajo]	canterò	cantaré	chanterai
cantar-*[as]	canterai	cantarás	chanteras
cantar-*[at]	canterà	cantará	chantera
cantar-*[emos]	canteremo	cantaremos	chanterons
cantar-*[etis]	canterete	cantareis	chanterez
cantar-*[a(u)nt]	canteranno	cantarán	chanteront

Erromantzean aurki daitezkeen lehenengo eskuizkribuak baino lehen bi aditz hauek elkartu ziren forma bakar bat sortzeko, taulan ikusten den moduan hiru hizkuntzatan, *habeo* aditzaren formak amaieratzat hartu ziren.

Gaztelanian, hala ere, badaude bi aditz ezberdin zirela frogatzeko adibideak, XVI. mendean oraindik banatu ahal zituztelako izenordain klitikoen bidez. Adibidez, gaur egungo *le darás* forma mende horretan *dar le has* moduan aurki daiteke.

#### *Baldintzazko forma*

Geroaldiko forma sortu ostean aditzaren infinitiboa eta *habere* aditzaren konbinazioaren bidez, beste denbora berri bat sortzeko aukera ematen da: geroaldia iraganaldian. Denbora hau, kondizionala moduan ezagutzen dena gaur egun, aditzaren infinitiboa eta *habebat* aditza elkartuz lortzen da.

Forma honen oinarria zehar estiloa aurki daiteke. Hasieran latinez infinitiboa eta partizipioak erabiltzen ziren aditzak adierazteko:

- I. *Dicit Marcum venturum esse.*

“Marcus etorriko dela dio”.

- II. *Dixit Marcum venturum esse.*

“Marcus etorriko zela esan zuen”.

Ikusten denez, aditz nagusia (*dicit, dixit*) da hizketaldiaren denbora markatzen duena eta *venturum* soilik geroaldiko aspektua ematen dio ekintzari. Hala ere, jakiteko non kokatu

ekintzaren denbora, aditz nagusira jo behar da ere bai. Denborarekin, berrikuntza bat eman zen zehar estiloan eta hiztunek menderatzaileak erabiltzen hasi ziren, perpaus jokatuak sortuz menpeko perpausetan:

- I. *Dicit quod Marcus venturus est.*
- II. *Dixit quod Marcus venturus erat.*

Menpeko perpausa jokatu, *esse* aditzak markatzen zuen denbora ekintzan eta ez aditz nagusiak. Geroaldiko partizipioa baztertzeko ari zenez, bere ordean geroaldi berria erabiltzen hasi zen perpaus hauetan:

- I. *Dicit quod Marcus venire habet*
- II. *Dixit quod Marcus venire habebat*

Elkarketa honetatik jaio zen paradigma berri bat, latineko subjuntiboren funtzio batzuk hartuz, haien artean, kondizionalaren funtzioa. Hizkuntza erromantzeetan hauteman daiteke kondizionala bereiztutako modu bat dela, latinean existitzen ez zena. Gaztelanian eta frantsesean ikusten da *habere*-ren lehenaldi burutugabetik datorrela gaur egungo kondizionala:

Taula 24: Latinaren, gaztelania eta frantsesaren baldintzazko formak

Latin arrunta	Gaztelania	Frantsesa
cantar	cantar	chanter
cantar-[ea]	cantaría	chanterais
cantar-[eas]	cantarías	chanterais
cantar-[eat]	cantaría	chanterait
cantar-[eamus]	cantaríamos	chanterions
cantar-[eatis]	cantarías	chanteriez
cantar-[eant]	cantarían	chanteraient

Italieran, aldiz, garatutako lehenaldi burututik garatu zen, *ebbi*:

Taula 25: Italieraren baldintzazko forma

Latin arrunta	Italiera
cantar	cantare
cantar-ebbi	canterei
cantar-(av)esti	canteresti
cantar-ebbe	canterebbe
cantar-(av)emmo	canteremmo
cantar-(av)este	cantereste
cantar-ebbero	canterebbero

## Ondorioak

Lan honen helburu nagusia izan da hiru hizkuntza erromantze hauen aditzen forma sinpleen morfologiaren garapena aztertzea, ikustea zer nolako eboluzio egon den latinetik gaur egungo hizkuntzetara forma hauetan.

Alde batetik ikusi da kasu batzuetan latineko formak ia ez direla aldatu, garapen fonetikoaren egon dela baina, morfologiaren aldetik, oso kontserbakorrak izan direla, adibidez: forma jokatu gabek (infinitiboa, partizipioa eta gerundioa) eta agintera modua. Era berean, hauteman daiteke latinak zuen aberastasuna formetan murriztu dela jokatu gabek kasuan: hirurek bazituzten forma anitzak denbora, ahotsa, kasua, numero eta generoaren arabera, baina gaur egun soilik forma horietako bat mantentzen da: infinitiboko forma bat, partizipioko forma bat eta gerundioko forma bat.

Bestalde, bestelako formetan aldaketa handiagoak hauteman dira italiera, gaztelania eta frantsesaren aditz morfologian. Konjugazioak latinetik hizkuntza erromantzeetara berrantolatu dira eta hizkuntza bakoitzak berrantolaketa ezberdina izan du: italierak eta frantsesa lau konjugazioak mantendu dituzte gutxi gorabehera, gaztelaniak, aldiz, hirugarrena hautsi eta honetan aurkitzen ziren aditzak beste konjugazioetan sartu ditu. Indikatibo moduan orainaldia, lehenaldi burutua eta lehenaldi burutugabea dira gaur egungo hizkuntzetan aurkitzen diren forma sinple bakarrak, beste guztiak konposatu bihurtu dira. Subjuntiboko moduan antzekoa gertatzen da eta soilik orainaldiko eta lehenaldi burutugabeko denborak aurki daitezke forma sinpleetan hiru hizkuntza hauetan.

Nahiz eta gaur egun geroaldia eta kondizionala forma sinpleak izan, jatorrian aditzaren infinitibo forma + *habere* aditza orainaldian eta lehenaldi burutugabea jokatuta nahasiz eman zen.

Beraz, ikusten da italiera, gaztelania eta frantsesaren aditz morfologiek latinaren morfologiaren zati bat aldaketa askorik gabe mantentzen dutela forma sinpleetan, baita mendebaldeko erromantzean eman den garapenaren emaitza paradigmatan nolabaiteko uniformetasuna mantentzen duela ere.

## Bibliografía

- Alkire, T., & Rosen, C. (2010). *Romance languages : A historical introduction*. Cambridge etc.: Cambridge University Press.
- Beltrán Cebollada, J. (1999). *Introducción a la morfología latina* (Monografías de filología latina, 8). Zaragoza: Departamento de Ciencias de la Antigüedad, Universidad de Zaragoza.
- Caro, M. A., & Cuervo, R. J. (1972). *Gramática de la lengua latina: Para el uso de los que hablan castellano* (10th ed.). Bogota, Colombia: Instituto Caro y Cuervo.
- Fradejas Rueda, J. (2016). *Las lenguas románicas* (2ª ed., Bibliotheca philologica). Madrid: Arco/Libros.
- Gargallo Gil, J. (1989). *Guía de lingüística románica*. Barcelona: Promociones y Publicaciones Universitarias.
- Klausenburger, J. (1979). *Morphologization: Studies in latin and romance morphonology* (Linguistische arbeiten, 71). Tübingen: Max Niemeyer.
- Lausberg, H. (1965). *Lingüística románica* (Vol. V. ii /, Biblioteca románica hispánica. iii, manuales, 12). Madrid: Gredos.
- Maiden, M., Smith, J., & Ledgeway, A. (2011). *The Cambridge history of the romance languages* (Vol. Volume i, structures). Cambridge etc.: Cambridge University Press.
- Maiden, M., Smith, J., & Ledgeway, A. (2013). *The Cambridge history of the romance languages* (Vol. Volume ii, contexts). Cambridge: Cambridge University Press.
- Segura Munguía, S. (2012). *Gramática latina : Nueva trilogía sobre la lengua latina*. Bilbao: Publicaciones De La Universidad de Deusto. (2012).